

Bokazioak

RAMON ETXEZARRETA



ZEHATZASUNIK gabe bokazioak mintzo garen argi dago apaiz bokazioz ari garela, gainerantzekoetan zerena erantsiz egin behar da.

Bada, apaiz bokazioak, Gipuzkoako daturik besterik ez dut, guztiz urritu omen dira. Zorionerako usteko du zenbatek, zoritarerako esango dute gehienek. Ai! Euskaldunon gehiengoak.

Hamar urtera Gipuzkoako apaizak gaurko erdiak izango omen dira, haize polakoek, zaharrek eta berriek, egoerari erremedioa jartzeko modurik egiten ez badute. Walesaren esportazio politikaren pentsatze hutsak ikara eta extranjeria legea bururatzaren dizkit.

Hain apaiz gutxiekin elizkizunen ardura eta zuzendaritza norik eramango duen galdetzea lojiko da. Zenbat eliza itxiko den, eliztarrak beren bizilekutik zenbat kilometrotara dauden parrokietan konzentratu beharko dituzten, edo soluzio majiko bat.

Telebista da soluzio majikoa. Gaur, hain gutxi eztabaidaturik, politikoskoek egindako aukeran herriaren eskubide eta eskabide bat betetzeko duen zerbitzua da meza telebisatzea. Ni kontra nago. Gaurtik hamar urtera gizarte zerbitzu bat izango da. Meza telebisatu egin beharko dute erretorerik gabe bizi direnizat. Ni, alde egongo naiz. Baina pelikular bezala, mozketekin eta publizitatearekin emanda, autofinantziatua, eta hala ere iristen ez badira, futbola bezala, publizitate sobreinprimatuarekin, jokaldirik onenen errepikapenarekin. Imajina, La Navarra les ofrece... eta dzanga estu-dioetan erretoreak.

ETB doh

TXILLARDEGI



ASPALDIKO honetan Miramon-go aretoetara azaldu gabe egon ondoren (eta irakurle bizkorrek ongi somatzen du zergatik), astearte arratsaldean (18an, beraz) ETBra joan nintzen.

Sartu ez al naiz, pareta guztietatik oinetik heldu: «Olé! Olé!... trákatatrá-trá-trá»...

Alajainkoa! Non sartu ote naiz ba? —nere artean galdetu.

Bi dozena emakume, «sevillana»z jantzirik; eta beste bi dozena gizaseme, beltzez, gorontza beltzak hestu-hestu.

«Si. Les ha contratado Moreno para la emisión especial de Navidades.

Plasta ederra nire!


Haseran azaldu zigutenez, Euskal Herriko erdalidunak erakartzekotan sortu zen «ETB-dos» delakoa. Eta guk, gijazook, sinetsi egin genuen... Eta miloi andana bat sartu genuen hor, eta ETBko pertsona batzu galdu ere bai. Dena ETBren kalitatean izango bazen ere.

Gero ulertu dugu ETB-dos zer zen: euskaldunak espainiaritzeko tresna bat, beste bat. Atzoko nire sopsorak irizpide horretantxe sendotu nau. ETB-bi ez da «ETB-doh» baizik, sevillanas eta guzti.

Hemendik «ETB-doh»en suntsiera eskatzea alferrikako lana da. Badakit. Eta beste eskabide hau egingo dut: «ETB-doh» osoa, «Telenorte»ra pasatzea. Diru mordsoska galanta berreskuratuko genuke ETB indartzeko.

«Galera» hori dela-ta, txalo joko genuke aberzaleok, gogoz. Baina, Elorza eta Ordóñez-en desgustuan, txistuz eta dultzainaz lagundurik.

HEMEROTEKA



tela hainbeste hil arrazoi hain zentzugabekoagatik.

(...)

AURELIO ARTETA / 90-XII-21

EL MUNDO

Xevarndadze, Georgiako gizon lasaia

(...)

Neurri batean, Xevarndadze beste batzuren akatsak ordaintzen ari da. NATOTik EEERa, Washintonetik Madrilera, kantzelaritzeta eta nazioarteko erakundeek era isurkorenean go-raipatu zituzten Georgiako gizon lasaiaren tasunak.

Laudorio guztien atzetik bedur sakonenak izkatuzten dirá. Beteko ote du SESBak Alemania eta Eki Europatik iritezko egindako agindua? Saddam Husseinen aurka Mendebaldeari laguntzen jarraituko ote du? Errespetatuko ote dira dagoeneko hartutako armamenduari buruzko akordioak eta sinatuko ote arma estratejikoek, aurreko guztiak baino garrantzitsua-goa, datorren otsaileko 11 eta 13 arteko Bush eta Gorbaxoven bilera-ko egiten ari zirenak?

FELIPE SAHAGUN / 90-XII-21

EL DIARIO VASCO

Demokrazia eskuhartzailea

(...)

Jakina autobidea defendatzen duenak ez daukala kementa ematen dion atzealde armatu hori, nahiz eta aurkakoa esanez buru-belarri ari koordinadorako teoriko bakezaleak

Baina herri batek ezin du banakakoaren bedurra taldearen ekimenaz ezabatzea baino beste irtenbiderik aukeratu; ez du ezertarako balio autodeterminazioa eskatzeak edo autogobernua martxan jarri nahi izateak, pistola batuzten itzala nahikoa bada gehiengoak erabakitako akordio batzu betetzea eragozteko.

(...)

Normala den bezala, norbaitek erantzun dezake honek enfrontamendu zibil arriskua dakarrela, baina ezin dugu onartu beste masaila jartzearen Bilibiaren aginduari jarraituz, batzuk izatea beti matrailekoa ematen dutenak.

JOAQUIN ELOSEGI

AMUNDARAIN / 90-XII-21

EL PAIS

Euskal Herrian Euskaraz?

(...)

Ez da egia, Tovarrek idatzi zuen bezala eta oraindik batzuk defendatzen duten bezala «euskal probintzietan eta Espainiar bakearen bidea hizkuntz politika denik». Hori nahi den nabardura guztiakin ondokoa mantentzea bezalakoak litzateke: lehenengo, hemen komunitate bat dagoela, guztiz euskalduna ez bada ere, zalantzarik gabe benetan izatera heldu nahi duena; bigarren, aipatutako komunitateak instituzionalki zapal-

ITURRIA / SUD OUEST / 90-XII-21

duta ikusten duela bere ohizko edo irrikatzen duen hizkuntz adierazpena; hirugarren, ETA-ren borroka armatua zampaketa horren aurreko erresistentziaren fruitua eta garrantia dela, eta laugarren, euskaldun ez garenok, era guztiak espainolisteekin batera, garaia herri hau gerrara kondenatua egotearen ardura-dunak. Bere senean dagoen euskal herritar batek ere ez du proposamen hauetariko bat ere ez onartuko. Kasurik onenean ere, eta are gehiago bere esistentziaren erdia atzean utzi badu, modu honetako trikimailuek bere bizitzaren urte larregi ohostu dizkiotela pentsatuko du. Txarrenean, inoiz hain gutxi ez dituz-

ZUZENDARIARI

Hezkuntza sailari

Irale-n gauden irakasleok, salaketa hau plazaratu nahi dugu.

Gaur egungo gizarteak euskara eskatzen du eta Euskal Eskola, ordea, ezin du eskaera hori bete gizarteak eskatzen duen neurrian.

Batetik, Irale-k liberatzen duen maisu-maistra kopurua oso eskasa delako. Eta bestetik, Irale-ren bidez lortzen den maila nahikoa ez delako, hezkuntza barruan egin behar den lana egiteko, gure ikasleen prozesuaren kaltetan doana.

Guretzako, Irale-ren bete beharra hau da: maisu-maistrak euskalduntzea. Baina gure buruei begiratu ondoren, kezka haundi bat sortzen zaigu; euskalduntze prozesu honetan, izugarriko ahaleginak egin ondoren, ikasleen eta irakasleen aldetik hain zuzen ere, lortzen dugun maila nahikoa ez dela ikusten dugu, ez

bait dugu hizkuntza menperatzen. Hau dela eta, eskolara joaten garenean, hainbat tentsio dugu umeen euskalduntze prozesuari erantzun ezin diezaiokegularako.

Konkretuki, gure eskar-rak hauek dira:

1º) Gaur egun Ega titulua hizkuntzaren gaitasuna eskaintzen duen bakarra dela eta, Irale-ren helburu minimoa hauxe izan behar dela pentsatzen dugu.

2º) Euskarazko klaseak emateko behar dugun prestakuntza berezia, Irale-n barruan egin behar da.

3º) Esan dezagun, azkenik, klaseetara bueltatu baino lehen, praktika moduko esperientziak edo edukitzea beharrezkoa dela uste dugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu gogoratzea, gutun honetan azpimarratutako gaia, ez guri bakarrik dagokigula, baizik eta gizarte osoari. Azken finean, gure seme-alaben heziketari buruz hizketan ari gara.

Esan behar da, Eusko Jaurlaritzari ere gutun bat

bidali diogula (90-11-27), arazo hau aipatzen eta bere erantzuna eskatuz eta oraindik ez dugula erantzunik jaso.

IRALE-KO ASANBLADA (255 sinadura)

Preso eta atzerriratuekiko elkartasuna

Espepxe eta atzerriratuekin bat eginez eta euren arazoa gurea ere badela ulertuz, haien alde eratzten diren ekintzetan parte hartzea dei egiten dugu. Gure oromena eta solidaritatea adierazten diegularik Eguberri eta jai hauetan.

Benetako Bakea lortzeko Amnistia ezinbestekoa dela uste dugu eta hau lortzeko hainbeste aldez aipatutako Negoziazioa behar-beharrezkoa da.

EVA ESNAL
GIPUZKOAKO KRISTAU ELKARTE HERRITARRAK

PERTSONAIA



Eduard Xevarndadze

Mundu hontako bi potentzien lotura izanda bera, lasaitasuna eraman zuen Pertsiar Golko aldera. Xevarndadzerentzat aitzaki soila erusiar egoera, orain Gorbaxov oso haserre balore eta boltsa behera, Gabon jaietan turroira jenez lasai egongo al gera?

MILLAN TELLERIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JUAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarai:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZAHARRETA

INAKI URIA

Publizitateak:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidua: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakitua, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxa: 46 90 22
Erredakzioa eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea, 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77

Gipuzkoa: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Baxenafarra / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11